

Urriaren 18an
URTEAN ZEHARREKO 29. IGANDEA
Domund jardunaldia

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Domund, Misioen Mundu eguna dugu gaur Eliza osoan, goiburu honekin: “Hemen nauzu, bidal nazazu”. Ebanjelioaren indar berritzailea gizaki guztiei helaraztea da Elizaren egitekoa, ausardiaz eta itxaropenez bete behar duguna. Eta egiteko horrekin PREST gaudela adierazi eta ospatu nahi dugu igande honetan.

Zabal dezagun bihotza, Bataioan jaso genuen misiolari eginkizun bikain hau Jainkoak gaur gudan esnarazi eta sutu dezan.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekaturik ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
egizu, gure gogoa Zuri emana egon dadila beti,
Zu, Jaun handi hori,
bihotz leialez eta garbiz zerbitza zaitzagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Denok gara Jainkoaren borondatea betetzera deituak. Sortu gintuena Bera, gai da guran onginahizko haziak aurkitzeko, gai da gu eskutik hartu eta maitasunez begiratzeko, Berarengandik aldentzen garenean ere. Egin dezagun guk ere hori bera gehien behar gaituztenekin.

Lehenengo irakurgaia (Is 45, 1. 4-6)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo zaio Jauna bere gantzutuari, eskutik daraman Zirori, honek menperatuko baititu, eta erregeei gerriko armak kenduko dizkie; atek bere aurrean zabalduko zaizkio, eta sarrerarik ez zaio itxiko: «Jakob nire zerbitzariarengatik, Israel nire aukeratuarengatik, zure izenez deitu zaitut, izen handi bat eman dizut, zuk Ni ezagutzen ez banauzu ere. Ni naiz Jauna, eta ez da besterik; ez da jainkorik, Ni baizik; Nik jazten dizkizut gerriko armak, zuk Ni ezagutzen ez banauzu ere; eguzki alde batetik besteraino jakin dezaten, ez dela Ni besterik. Ni naiz Jauna, eta ez da besterik».

Erantzun-salmoa (Sal 95, 1-3. 4-5. 7-8. 9-10ac)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
 a be - re be - ti - ko e - rru - ki - a.

Kanta Jaunari kantu berri, '
 kanta, lur osoa, **Jaunari**.
 Kanta Jaunari, bedeinka Haren izena, '
 iragarri egunez egun Harengandiko sal**ba**mena.
 Zabaldu Haren ospea atzer**ri**etan,
 Haren mirariak herri gu**ti**etan. R/.

Handi baita Jauna, eta guztiz go**res**garri,
 jainko guztien aldean **itza**lgarri.
 Iduri huts dira atzerriko jainko **gu**ziak,
 Jaunak, ordea, zeruak **egin** ditu. R/.

Herrietako sendiak, eman **Jaunari**,
 eman Jaunari ospe eta **gor**aldi.
 Eman ospe Jaunari bere izenaren **eder**rez,
 sar zaitetze Haren atar**ie**tan opariak **er**amanez. R/.

Jauretsazue Jauna jantzi gu**re**nekin,
 ikara zaitetz, lurbira guztia, Haren **aur**rean.
 Esazue atzerrietan: «Jauna **erre**ge da,
 herriak zuzenbidez epai**zen** ditu.» R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ts 1, 1-5b)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako
 lehenengo epistolaren hasiera

Paulo, Silbano ete Timoteok, Tesalonikan Jaungoiko Aitaren eta Jesu Kristo Jaunaren eliz batzarkide zaretenoi: grazia zuei eta bakea. Jaungoikoari eskerrak ematen ari gara beti zuen guztiongatik, gure otoitzetan etengabe gogoan zaituzteguna. Jainko gure Aitaren aurrean gogora ekartzen ditugu zuen sinesmen egintzak, zuen maitasun lanak eta itxaropenaren sendotasuna Jesu Kristo gure Jaunarengan. Badakigu, senideok, Jaungoikoaren maiteok, Hark aukeratuak izan zaretela. Izan ere, hots egin zitzaizuen Ebanjelioa ez zen hitz hutsetan gelditu zuengan; Espiritu Santuaren indar aberats bihurtu zen eta sinesmen sakon.

Aleluia (*Flp 2, 15b-16a*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

Izar argiak bezala agertzen zarete munduan,
bitzaren zentzubide bat emanez. R/.

Ebanjelioa (*Mt 22, 15-21*)

Homiliarako argibideak

Gaur normala iruditzen zaigu Elizaren eta Estatuaren arteko bereizketa. Botere politikoaren eta ekonomikoaren arteko bereizketa ere atsegingo genuke. Jesusek, ordea, botere guztiak nahasita zueden garaia ezagutu zuen: erlijiosoa, politikoa, ekonomikoa... denak herria zapaltzeko. Jesus izan zen hain zuzen, errealitate hartan beste bide bat zabaldu nahi izan zuena: heriotzaraino eramango zuen bidea, hain zuzen ere.

Zergei zegokienean, Jesus ez zen sartu jarri zioten trikimailuaren sarean, garbi asko esan zuen Jesusek ulertu nahi zionarentzat esan beharrekoa, farisear eta herodeszaleek ondo ulertua izango duten, gaienera, Jesusi horrek eragin zion guztiarekin. Jesus ez zen sartu zergen afera zehatzean (Mt 22,15-21). Sustraira joan zen, erromatarren okupazioak herriari zerkarkion arazora. Indarrez ezarritako zerga zen, Jainkoaren nagusitza baztertu eta nagusi egin denaren zerga. Jainkoaren eta gizakiaren irudirik ez egiteko agindua hausten zuen indarra zen, emperadorea, jainkoen pare bazten guztietan azaltzeraino. Jesusek ezin zuen onartu giza botere batek herria Egiptoko esklabotzatik askatu zuen Jainkoa baztertzerik.

Birao gertatzen zitzaion botere mota hura salatzeaz batera, judu konplizeak ere salatzen ditu, tenpluko agintariak, alegia, egoera horretatik etekina ateratzen baitzuten: ona zuten orduan erromatarren dirua, zergatik zetorkiena. Erromako nahiz judeako agintariak bat egiten zuten herria estutzean. Jesusek denak salatu zituen: farisearrak, herodeszaleak, apaizak eta tenpluko agintariak... tenplua diru-toki bihurtzen zutenak. Agintari erlijiosoek, ordea, ezin onartu zuten Jesusen askatasuna eta erromatarren esku utzi zuten gurutziltza zezaten.

Jesusek zalantzan jarri zuen Jainkoa beren interesetarako erabiltzen zuen egitura politiko eta elijioa, herriari zamak ezartzen zizkiona. Bere tokian jarri zuen bakoitza. Horrek ez du esan nahi, ordea, agintariak Jainkoarengandik aparte zeudenik, nahi zutena eginez diruari zegokionean bereziki. Jesusentzat, dirua ere Jainkoaren asmoen arabera erabili behar da: behartsuenen zerbitzura eta hauek lehenetsiz.

Misioen eguna dugu gaur, lehen ere aipatu dugunez. Egun honek eskuzabal izatera deitzen gaitu, baita diruz ere eskuzabal, herrialde behartsuenetako Eliza hasiberriekin.

“Nor bidaliko dut?” galdera, Jainkoaren bihotzetik dator: bere errukiz, elizari eta gizadiari begira dagoelarik. Ezin dugu bakarka bizi, beste aldera begira. Mundua ezagutzeko eta maitatzeko deia egiten zaigu, mundu horren erdian Jaunaren testigu izateko.

Kristo ari da eliza bere baitatik aterarazten. Berri ona zabaltzera bidaliak gara, Jaunaren dei horri erantzunez, eta mundu osoari jakinaraziz inor ez dela Jainkoaren maitasunetik kanpo geratzen.

Eukaristiaren ospakizunak bete gaitzala pozez eta egin gaitzala egiazko testigu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitza gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

—Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.

—Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gaindituz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiogun Jaunari.

—Misiolari guztien alde, Jesusen antzeko izatea bedi beraien poza, Ebanjelioaren zerbitzuan besteentzat biziz. Eska diezaiogun Jaunari.

—Etorkinak eta iheslariak, gizarteak bazterten dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezen Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jakinduria eta errukia zaren Jainkoa, maitasunez gidatzen dituzu Zure sorkari guztiak; entzun gure otoitzak eta egizu inork ez dezala

gaizki erabili jaso duen dohainik, baizik eta giza ahalmen guztiak izan daitezela denon onerako, gizadi osoak zu aitor zaitzan egiazko Jaungoiko. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Ohartarazi, diru-bilketa [egiten den unean] Domund jardunaldirako izango dela.

Jaunartze ondorengo otoitza

**Jauna, eukaristi ospakizun honek
zeruko bizia gozarazi digu aldez aurretik;
izan dezagula beraren laguntza
lur honetan zure ondasunak gozatzeko,
baita argia ere betikoak maitatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**